


Olatu handia



Behin batean bazen Hana izeneko neska bat. Hana aitonaekin bizi zen. Aitona oso jakintsua zen. Mendian bizi ziren arroz soroen ondoan.

Soro horiek herritarrenak ziren eta Hanaren aitona zaintzen zituen.




Herria mendiaren azpian zegoen, itsasoaren ondoan. Hanaren etxetik etxeak eta herritarrak txiki-txikiak ikusten ziren.

Egun batean, zerbait gertatu zen. Zerua beltza zegoen. Aitonak olatu handi bat ikusi zuen.

Aitonak Hana deitu zuen:

- Hana etorri!!! Hana etorri!!!
- Zer nahi duzu aitona?
- Ekarri antortxa bat.



Hanak antortxa aitonari eman zion.
- Zer egin behar duzu aitona? – esan zion Hanak.



Aitonak antortxa hartu eta arroz sorora bota zuen.

Su txiki bat piztu zen eta gero sua handi-handia egin zen.

Herritarrek soroa sutan ikusi eta korrika mendira igo ziren.



Mendian Hana eta aitona zeuden, zain.


- Zer egin duzu aitona?- galdetu zion Hanak



Jendea oso haserre zegoen. Aitona eta Hana inguratu zituzten. Oihuka hasi ziren:

- Txoratuta zaude?
- Gure soroak erre dituzu?
- Baina nork erre ditu gure soroak?





Aitonak lasai-lasai esan zien herritarrei:

- Nik erre ditut soroak, bai.
- Zergatik?- galdetu zioten herritarrek haserre.

- Begira itsasoa!! – esan zuen aitonak.
Orduan, herritarrek olatu handi-handi bat ikusi zuten.



Olatu handiak herria urperatu zuen.
Gero beste olatu bat iritsi zen, eta beste bat, eta beste bat...
Den-dena suntsituta gelditu zen.

Aitona oso lasai eta pozik zegoen herriko jendea salbatu zelako.
Herritarrek eskerrak eman zizkioten aitonari:
- Eskerrik asko aitona!!
- Zuri esker bizirik gaude – esan zioten herritarrek.
Eta denak pozik eta alai bizi izan ziren.



AMAI ERA

Herri ipuina-moldatua

HI ZTEGIA:

- Jakintsua: asko dakien pertsona
- Soro: zelai, belardi, alor
- Urperatu: urez estali
- Suntsituta: deseginda

IZENA:.....DATA:.....

Olatu handia - Ariketak

Jarri X erantzun egokiaren parean.

1 – Aukeratu beste izenburu bat ipuinarentzat?

- | | |
|--------------------------|------------------|
| <input type="checkbox"/> | Herri handia |
| <input type="checkbox"/> | Hana tristea |
| <input type="checkbox"/> | Antortxa gizona |
| <input type="checkbox"/> | Aitona jakintsua |



2.- Nola du izena aitonak?

- | | |
|--------------------------|------------|
| <input type="checkbox"/> | Reiko |
| <input type="checkbox"/> | Hana |
| <input type="checkbox"/> | Ez dakigu |
| <input type="checkbox"/> | Herritarra |

3. Non bizi da Hana?

- | | |
|--------------------------|----------------------------|
| <input type="checkbox"/> | Mendiaren azpian |
| <input type="checkbox"/> | Arroz soroen ondoan |
| <input type="checkbox"/> | Herrian, itsasoaren ondoan |
| <input type="checkbox"/> | Herrian |

4. Irakurri ondorengo esaldiak eta esan egia edo gezurra diren: E/G
(E=egia G=gezurra)

Neskaren izena aitona da.

Aitona eta neska itsasoan bizi ziren.

Neskaren aitona arroz soroak zaintzen zituen.

Neskak Hana du izena.

5. Norenak ziren soroak?

Soroak Hanarenak ziren.

Soroak herritarrenak ziren.

Soroak aitonarenak ziren.

Soroak herriko jaunarenak ziren.

6. Zer ikusi zuen aitona? (Idatzi esaldi oso bat)

.....

7. Lotu gezi baten bidez aurkakoak:



mendiaren azpian

mendi txikia

itsaso iluna

mendiaren gainean

itsaso beroa

itsaso hotza

mendi handia

itsaso argia

8. Ordena itzazu ipuinaren pasarte hauek denboraren arabera:
(1. 2. 3. 4.)

Aitonak antortxa bat eskatu zion Hanari.

Aitonak arroz soroak zaintzen zituen.

Olatu handiak herria urperatu zuen.

Herritarrek soroa sutan ikusi zuten.

9. Irakurri ondorengo esaldiak eta esan egia edo gezurra diren: E/G
(E=egia G=gezurra)

Aitona oso haserre zegoen.

Aitona oso lasai zegoen.

Olatu handiak herria suntsitu zuen.

Olatu handiak aitona ikusi zuen.

10. Azkenean aitona pozik zegoen. Zergatik uste duzu aitona pozik zegoela? (idatzi esaldi oso bat).

.....

